

Ruandaren bide beretik?

200.000 hildako izan dira Burundin zazpi urte iraun eta Armada tutsia eta gerrilla hutuak boterea eskuratzeko lehia aurrez aurre ipini dituen guda zibilaren ondorioz

Twa eta Pygmy-ak izan ziren egun Burundi izenez ezagutzen den Afrika erdialdeko nazioko lehen biztanleak. Geroago iritsi ziren hutuak, eta hauen atzetik tutsiak XVI. mendean. Kolonialismo garaian Alemaniaren eta Belgikaren kontrolpean egon eta gero 1962an eskuratu zuen Burundik independentzia.

Gutxiengo tutsiak (populazioaren %14) boterea bere esku izan du hainbat urtetan Burundin, bere ondoko Ruandan bezala. Etnia horrek hutuek boterea hartzeko egin dituzten errebolta guztiak zapaldu ditu. 1972an, kasu horretako adibiderik latzenez, tutsien esku zegoen Armadak 200.000 inguru hutu erail zituen. Hutuek 10.000 bat tutsi hilda erantzun zuten.


Estatu kolpe bat eginda boterera igo zen Pierre Buyoya komandanteak lehen hauteskunde demokratikoetarako deia egin zuen 1993ko maiatzean, eta hutu etniako Melchior Ndadaye hautatu zuten presidente.

Krisia

La Crise izenez ezagutzen dute burundiarrek 1993ko urrian Armada tutsiak Ndadaye presidentea erail eta gero piztu eta zazpi urte iraun duen guda zibila. Hutuak talde errebolta biltu eta milaka tutsi hil dituzte handik hona, eta gauza bera egin du Armada tutsiak komunitate hutuaren aurkako erasoak burutuz.

1994ko otsailan Cyprien Ntanyamira FRODEBU alderdi hutuko kidea presidente hautatu zuten. Urte bereko apirilean, ordea, Ruandako presidente Juvenal Habyarimana eta Ntanyamira Burundiko presidente berria hegazkin istripu batean hil ziren. Istripuaren zergatiak ez ziren argitu, eta gertaera horrek Ruandako genozidioari hasiera eman zion.

Armadak lege zibilaren berrezarpen nominala bermatu zuen, baina gobernu etenda egon zen 1996an Buyoyak boterea berreskuratu zuen arte. Biolentziarekin



Bikote hutu bat Burundiko Kashoroko errefuxiatu gune batean.

Burundi ◆



Biztanleak: 6.125.000

Hizkuntzak: Kirundu eta frantsesa, eta swahilia Tanganika inguruan.

Etniak: Hutuak (%85), tutsiak (%14), twa (%1). Beste afrikar batzuk ere badaude, 70.000 inguru, gehienak errefuxiatuak. Europarrak 3.000 inguru.

Erligioak: Kristauak %67 — katolikoak %62, protestanteak %5—. Erligio indigenak %31. Musulmanak %1.

Bizi itzaropena: 40,3 urte.

Haurren hiltze-tasa: Mila jaioberritik 113,7 hiltzen dira.

Alfabetatze tasa: 15 urtetik gorako biztanleen artean %50ek dakite irakurtzen eta idazten.

Bizimodua: biztanleen %90 nekazaritzatik bizi dira, gehientsuenak beren buruak hornituz.

J. APEZTEGIA

amaitzea zen haren helburua, baina ez zuen xede hori lortu, eta nekazaritza eskualdeetan bildutako hutu matxi-noek eta hirietako milizia tutsiek sarraskiak egiten jarraitu zuten.

Talde armatuak

Bi talde gerrillari nagusitan

bildu dira errebelde hutuak: Demokrasiaren Defentsarako Indarrak (FDD) eta bere adar politikoa, Demokrasiaren Defentsarako Kontseilua (CNDD); eta Askapen Nazionalerako Frontea (FNL) eta Hutuen Askapenerako Alderdia (PALIPEHUTU), aurrekoaren aliatua.

Bi adar nagusiak elkarren

aurkako lehia eta agintari tutsien kontra aritu dira populazioaren babesa lortu nahian. Gobernuaren postuei eta herrixkei eraso diete besteak beste, eta nekazariak beraiekin batera borrokatze-ara behartzen dituztela salatu dute giza eskubideen defentsarako erakundeek.

Tutsiei dagokienez, Buyoyak 1996an boterea berreskuratu zuenetik, Armadaren kide kopurua hirukoiztu egin da, gudarekin amaitzeko aitzakiaz, eta aurrekontu nazionalaren %50 baino gehiago arlo militarrean bideratzen du gobernuak egun. Milizia asko sortu dira hainbat hiritan tutsiei babesa emateko asmoz, eta agintariak komunitate askotan autodefentsarako taldeak eratu eta armak banatu dituzte biztanle tutsien artean.

Burundiko Armada eta gerrillari hutuak inguruko herrialdeekin elkarlanean aritu dira, era berean. FDD eta PALIPEHUTUK eta Ruan-

Hutu eta tutsien norgehiagoka luzea

60ko hamarkadan Burundik independentzia lortu zuenetik, bertako etnia nagusi hutu eta tutsiek milaka hildako eragin dituen lehia etengabea izan dute boterea eskuratzeko lasterketan

1962ko uztaila • Burundi eta Ruandak independentzia lortu zuten.

1972ko apirila • Populazio eta militar hutuen sarraski handia errebelde hutuei egotzitako tutsien hilketaren ostean.

1987ko iraila • Pierre Buyoya komandantearen estatu kolpea eta Hirugarren Errepublikaren hasiera.

1993ko ekaina • Lehen hauteskunde presidentzial demokratikoak egin ziren eta FRODEBU alderdiko hautagai Melchior Ndadaye Hutua irten zen garaile.

1993ko urria • Armadak Ndadaye presidentea erail zuen. Hutuek tutsien aurkako sarraskiari ekin zioten, eta Armadak, horri erantzunez, populazio Hutua erailtzeari ekin zion.

1994ko otsaila • FRODEBUko Cyprien Ntanyamira presidente hautatzen dute.

1994ko apirila • Ntanyamira eta Ruandako presidente Juvenal Habyarimana hegazkin istripua izan eta hil egin ziren. Ruandako genozidioa hasi zen.

1996ko uztailak 25 • Pierre Buyoya komandantearen estatu kolpea.

1998ko ekaina • Tanzania Arusha hirian bake elkarrizketei hasiera eman zitzaion. Julius Nyerere bertako presidentek egiten ditu bitartekari lanak.

1999ko abendua • Nelson Mandelak hartu zuen bere gain bitartekari lana.